



EBAZPENA, 2018ko maiatzaren 10ekoa, Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearena, 2018ko apirilaren 20ko Ebazpenean egindako akatsa zuzentzen duena. Azken Ebazpen horren bidez, ondoren zehaztutako deialdiko eskaerak behin betiko ebazten dira. Deialdia hau da: 2017-2018 ikasturteko Haur Hezkuntza (2. zikloa), Lehen Hezkuntza eta DBH (1. eta 2. zikloak) egiten ari diren ikasleen eskola-garraiorako banan-banako diru-laguntzetarako deialdia.

39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, bere 109.2 artikuluan, zera esaten du: "Administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ditzakete, ofizioz edo interesdunek eskaturik, beren egintzetako oker materialak, egitezkoak edo aritmetikoak."

2018ko apirilaren 20ko Ebazpena, Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearena, eskola-garraiorako banan-banako diru-laguntzen deialdiko eskaerak behin betiko ebazten dituena, berrikusi eta gero, hurrengo akats materiala egon zela egiaztatu da: Arabako Lurralde Historikoari dagokion zenbatekoa okerra da, ikastetxe publikoetako ikasleei emandako diru-laguntzen batuketa gaizki egin delako.

Ikasle bakoitzari emandako diru-laguntzaren zenbatekoa zuzena da. Beraz, egindako akatsa, akats aritmetikoa baino ez da.

Aipatutako ebazpenean hurrengo hau esaten zen:

"Esleitzea 732.424,37 euro, ondoren datorren moduan:

ARABAKO Lurralde Historikoa	316.871,41
GIPUZKOAKO Lurralde Historikoa	215.012,52
BIZKAIKO Lurralde Historikoa	200.540,44

"

Akatsa zuzendu ondoren, aipatutako ebazpenak zera esan beharko luke:

"Esleitzea 732.421,29 euro, ondoren datorren moduan:

ARABAKO Lurralde Historikoa	316.868,33
GIPUZKOAKO Lurralde Historikoa	215.012,52
BIZKAIKO Lurralde Historikoa	200.540,44

"

Aipatutako akats materialari buruzko araudia eta dagokion beste araudi guztia kontuan hartuta, eta eman zaidan eskudantzia betez,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Arabako Lurralde Historikoan emandako diru-laguntzen zenbatekoa eta, ondorioz, banan-banako diru-laguntza gisa emandako zenbateko osoa zuzentzea. Zenbateko zuzenak hurrengo hauek dira:

Esleitutako zenbatekoa 732.421,29 euro da, ondoren datorren moduan:


ARABAKO Lurralde Historikoa	316.868,33
GIPUZKOAKO Lurralde Historikoa	215.012,52
BIZKAIKO Lurralde Historikoa	200.540,44



Bigarrena: "euskadi.eus" webguneko iragarki taula elektronikoan argitaratzeko agintzea.

Hirugarrena: Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntza Sailburuari hilabeteko epean, "euskadi.eus" webguneko iragarki taula elektronikoan- Ebazpen honen berri eman eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2018ko maiatzaren 10ean.



Olatz Garamendi Landa
Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea